

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kanpezuko Udalaren eskumen-esparruan, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen udal-ordenantzaren behin betiko onarpena

Udalbatzak 2025eko urriaren 7an egindako ohiko osoko bilkuran hartutako erabakia jendarean jartzeko epea igaro ondoren (ALHAO, 117. zk., 2025eko urriaren 15ekoa), erabaki hori gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen udal-ordenantzaren (GEEP) hasierako onespenerari buruzkoa da, Kanpezuko Udalaren eskumen-esparruan, eta, horren barruan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, ordura arte behin-behinekoa zen erabaki hori behin betiko bihurtzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Oinarrien testua argitaratzen da, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera izango ditu ondorioak. Honela dio hitzez hitz.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko abenduaren 17a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO

**Udal ordenantza,
Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio
ekonomikoa (ZLPE) arautzen duena, Kanpezuko Udalaren eskumen-
esparruan.**

**I. TITULUA
Xedapen orokorrak**

1. artikulua – Xedea eta aplikazio-eremua

1.- Udal ordenantza honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko araubide juridikoa eta ekonomikoa arautzea, udal eskumeneko zerbitzuetan.

Hau da, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, ordenantza honen xedea dena, lotuta dago gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo dauden adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuekin eta ostatu-zerbitzuekin (etxebizitza komunitarioak), eta bi modalitatetan egituratzen da:

— Atsedeen-modalitatea, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzu edo ostatu-zerbitzuekin (etxebizitza komunitarioa) lotuta dagoenean –kasu guztietan gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, urtean gehienez 45 egunez –, zerbitzuaren izaeraren arabera.

— Modalitate arrunta, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzu edo ostatu-zerbitzuekin (etxebizitza komunitarioa) lotuta dagoenean –kasu guztietan gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, urtean 45 egun edo gau baino gehiago direnean, -zerbitzuaren izaeraren arabera-, aurreko gidoian aipatutako atsedeen-zerbitzuetarako ezarrita dagoena eta aldi baterako edo iraunkorra izan daitekeena.

2- Aipatutako prestazio ekonomikoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratzen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoaren arabera. Lege horren 22. artikuluan sistema horretako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasota dago. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, I. eranskineko 3.4.1 fitxan jasota dauka.

3- Prestazio ekonomiko hau emateko baldintzak eta hori emateko eta aplikatzeko prozedurak aurreko paragrafoan aipatutako araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira, baita ordenantza honetan jasotako xedapen espezifikoaren arabera ere.

2. artikulua – Definizioak

1.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, modalitate arruntean, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu eta zentroetara sartzeko, urtean 45 egun edo gau baino gehiago – zerbitzuaren izaeraren arabera – atsedeen-zerbitzuatarako ezarrita dagoen prestazio ekonomiko bat da. Prestazio horrek mendekotasun-maila bakoitzerako ezarritako zerbitzuen eta zentroen kostua finantzatzeko laguntzen du, betiere, sartzeko ebazpena ematen den unean, eskatzaileak zain badaude prestazio ekonomikoari dagokion zerbitzuaren Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan.

Modalitate honetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modu jarraituan baliatu beharko da.

2.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, atsedeen-modalitatean, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko kasu guztietan, prestazio ekonomiko bat da, zerbitzu horien kostua finantzatzeko laguntzera bideratua, baita, mendekotasuna aitortua duen pertsona bat zaindu ohi duten arren, atsedeen hartzeko, etxebizitzan erreformak egiteko, ospitaleratuak izateko edo antzeko egoeretan egoteko egun batzuk behar dituzten pertsonen laguntzera ere. Ondorio horietarako, 45 egun edo gaueko gehieneko denbora-muga aplikatuko da, atsedeen-zerbitzuaren izaeraren arabera.

Atsedeenaldien horiek modu jarraituan edo ez jarraituan hartu ahal izango dira.

Aurrekoaren ondorioetarako, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpokotzat joko dira sistema horretan sartuta ez dauden zerbitzu eta zentroak, eta ulertuko da Kanpezuko Udalak emandako zerbitzuak sartuta daudela, bai kudeaketa zuzena duelako, bai beste erakunde publiko batzuekin egindako hitzarmenen bidez ematen delako, baita erakunde pribatuekin egindako itun, hitzarmen edo kontratuen bidez ematen delako ere.

3. artikulua – Izaera eta ezaugarriak

1.- Udal ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoa mendetasun-arriskuan edo mendetasun-aitorpenean dauden eta hura eskuratzeko berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzako eskubidea da, betiere zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzua banakako arreta-programan jasotzen bada eta dagokion gizarte-zerbitzuak baliabide egokitzat jotzen badu.

2- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak ezaugarri hauek ditu:

- a) Mendetasun-arriskuaren arabera aitortzen da (23 eta 24 puntu MBB-Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan) edo 1. graduko mendetasun-aitorpenaren arabera.
- b) Izaera finalista du, eta aurreko artikuluetan prestazio ekonomikorako ezarritako helburuei lotutako gastuen estaldurari aplikatu behar zaio.
- c) Aldizkakoak dira.
- d) Besterenezina da eta, beraz, ezin da:

- Obligazioen berme gisa eskaintzea.
- Osorik edo zati batean lagatzea.
- Bere ordezkari konpentsazioa edo deskontua jasotzea, salbu eta prestazioaren kontzeptuan bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko ez bada, edo onuradunak udal politika sozialen kudeaketan eskumena duen sailak emandako prestazio edo zerbitzuengatik Kanpezuko Udalari ordaintzeke duen beste edozein zor ordaintzeko ez bada.
- Atxikitzea edo enbargatzea, aplikatzekoa den Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

e) Subsidiarioa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako zerbitzuei dagokienez, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Izaera subsidiario horrek, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, zehazten du ezin dela lehentasunezko baliabide gisa adierazi arreta-programa indibidualaren esparruan, honako kasu hauetan izan ezik:

— 75 urtetik beherako pertsonen mendetasun-egoera behin-behinean onartzen den kasuetan, zerbitzu egokia adinekoentzako ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) denean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa izango da lehentasunezko baliabidea, salbu eta inguruabarrek gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzu bat eskuratzeko aukera egokiena dela erabakitzen badute eta hori txosten tekniko baten bidez balioetsi eta justifikatzen bada.

4. artikulua – Prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasun eta bateraezintasunaren araubidea

1.- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean araututako prestazio ekonomikoak bateraezinak izango dira elkarren artean.

Aurrekoa gorabehera, babes-maila gehigarriaren esparruan, mendetasun-egoeran dagoen pertsona etxean geratzea errazten duten laguntzara, zaintzara eta arretara bideratutako prestazio ekonomikoak modu honetan bateratu ahal izango dira arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat:

- a) Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eta Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa bateratu ahal izango dira, betiere prestazio horrekin bateragarria den zerbitzu bati lotzen bazaio.
- b) Familia Ingurune Zaintzetarako eta Profesionalak ez diren Zaintzaileei Laguntzeko Prestazio Ekonomikoa Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoarekin bateratu ahal izango da, betiere horrekin bateragarria den zerbitzu bati lotzen bazaio.

Bateragarritasun horiek indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion kenkariak aplikatzea ekarriko dute.

2.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira antzeko helburuak dituzten Estatuko araudian aurreikusitako beste prestazio batzuekin, horien subjektu eragilea edo horren onuradun izango dena mendekotasun-arriskuan dagoen pertsona edo 1. graduako mendekoa bada, nahiz eta familia-unitateko beste kide baten izenean agertu, bereziki:

- a) Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikuluan eta hurrengoetan arautua.
- b) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan aurreikusitako ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik gorako seme-alabengatiko esleipen ekonomikoaren osagarria, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan.
- c) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan aurreikusitako beste pertsona baten premiagatiko kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioaren osagarria.
- d) Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitako hirugarren pertsonarentzako laguntza-sorospena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez atxikia, Legegintzako Errege Dekretu hori indarrean sartzean haren onuradun zirenentzat eta haren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenentzat, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

Kasu horietan, 2. paragrafo honetan aipatzen diren prestazio ekonomikoak Udal Ordenantza honetako 15. artikuluan araututakoaren arabera gutxiko dira.

5. artikulua – Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun eta bateraezintasunaren araubidea

1.- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, ordenantza honetan arautua, bateragarria izango da zerbitzuekin, honela:

Mendetasun-arriskuan edo mendekotasun-kon aitorpenean dauden I. graduako pertsonen kasuan, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntean, bai atsedenerako modalitatean, mendetasun-arriskuan edo I. graduaren dauden eta gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuekin zerikusirik ez duten pertsonen irekitako zerbitzuak eskuratzeko, bateragarria izango da zerbitzu bereberekin, lotzen den zerbitzua bateragarria bada.

Lerrokada honetan aurreikusitako bateragarritasunek kasuan kasuko kenkariak aplikatzea ekarriko dute, prestazio horiek arautzen dituen araudiaren arabera.

2.- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarria izango da Eusko Jaurlaritzak emandako telelaguntza-zerbitzuarekin, salbu eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko bat denean, modalitate arruntan, adinekoentzako ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko.

3- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarria izango da prestazioaren titularra zerbitzu-plazak esleitzeko zerrendan sartzearekin, adinekoentzako ostatu-zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak) barne.

6. artikulua – Banakako Arreta Programarekiko lotura

Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoetako edozein ematea lotuta egongo da titularrarekin Arreta Programa Indibidual bat ezartzearekin, lotzen den zerbitzuaren egokitasuna zehaztuko duena. Banakako Arreta Programa hori erreferentziako profesionalak egin beharko du, bere irizpide teknikoari eta, ahal den neurrian eta egokia bada, erabiltzailearen lehentasunei jarraiki.

II. TITULUA

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak, eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak

I. kapitulua

Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak

7. artikulua – Eskubidearen titularrak

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoaren titularrak izan daitezke mendetasun-arriskuan dauden pertsonak edo mendetasun-egoera aitortuta dutenak eta Ordenantza honetan nahiz 1. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan araututako sarbide-baldintza orokorrak eta espezifikak betetzen dituztenak.

2- Babes-maila gehigarria eskuratu ahal izango dute, artikulua honetako 1. paragrafoan aurreikusitakoa betetzeaz gain, mendekotasun-egoera aitortzeko lehen eskaera egin aurreko 3 urteetan Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon eta benetan bizi direla egiaztatzen dutenek. Era berean, babes-maila gehigarri hori eskuratu ahal izango dute, baldin eta, aitopen-dataren ondoren, Arabako Lurralde Historikoan 3 urtez jarraian erroldatuta egon eta benetan bertan bizi direla egiaztatzen badute, baldin eta hala eskatzen badute Ordenantza honetako I. Eranskineko inprimakia betez eta udalari hala egiaztatzen badiote.

3.- Aurrekoari kalterik egin gabe, arreta txandakatzen den kasuetan, babes-maila gehigarria eskuratzeko, beharrezkoa izango da egiaztatzea mendekotasuna duen edo mendetasun-arriskuan dagoen pertsonak Arabako Lurralde Historikoan duela egoitza espezifikoa urtean gutxienez 8 hilabetez.

II. kapitula
Prestazioa eskuratzeko baldintzak

8. artikulua – Prestazioa eskuratzeko baldintza orokorrak

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, aurreko artikuluan definitutako pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman sartzeko baldintzak, Ordenantza honetan ezarritakoak eta prestazioari lotutako zerbitzuan sartzeko berezko baldintzak betetzea.
- b) Banakako arreta-programa bat izatea, prestazioari lotutako zerbitzua egokia den zehazteko.
- c) Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, prestazio ekonomikoa jasotzea izapidetzeko dokumentazio osagarria aurkezten den egunean. Babes-maila gehigarria eskuratzeko, aurreko artikuluko 2. paragrafoan aipatutako errolatze-aldiak eta benetako bizileku-aldiak betetzea.
- d) Gizarte-zerbitzuek eskatutako informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoa emateari edo ukatzeari buruz ebazteko egokia denean.

9. artikulua – Pertsonari eska dakizkiokeen betekizun bereziak

Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko, 8. artikuluan jasotako betekizun arruntez gain, eskatzaileak honako baldintza berezi hauek ere bete beharko ditu:

- a) Prestazioari lotutako zerbitzua eskuratzeko baldintza bereziak betetzea.
- b) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu eta zentroetara sartzeko, hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen zerbitzu edo zentro batean plaza duela egiaztatzea.
Eguneko zerbitzu baten erabiltzaile batek Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modalitate arruntean eskuratzen badu, 45 egun baino gehiagor eta 3 hilabete baino gutxiagor adinekoentzako ostatu-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko –kasu guztietan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, lekua zerbitzu horretan gorde ahal izango du, betiere zerbitzu

horri dagokion prezio publikoaren ehuneko 90 ordaintzen badu adinekoentzako ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) dagoen lehen egunetik.

c) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedenerako modalitatean, adinekoentzako ostatu-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko –gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak–, mendekotasuna duen pertsonak etxean bertan egon beharko du zainduta, gutxienez atsedenaldiaren aurreko eta ondorengo hiru hilabeteetan. Aurrekoa ez da eskatuko atsedenaldi horretan edo egonaldiaren ondorengo hiru hilabeteetan mendetasun-egoera bat-batean larriagotzen bada edo familia-egoera bat-batean aldatzen bada eta horrek etxera itzultzea edo bertan zaintzea eragozten badu. Kasu horietan, hasieran atsedeen-modalitatean emandako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ofizioz aldatuko da modalitate arruntera, eta modalitate berri horri dagokion zenbatekoa aplikatuko zaio. Prestazioa birmoldatzea eragin dezaketen inguruabarrak 15 egun naturaleko epean jakinarazi beharko dira, etxera itzultzea edo hura zaintzea eragozten duen gertaera gertatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Egonaldiaren ondorengo hiru hilabeteetan edo hiru hilabeteren barruan mendeko pertsona sare publikoko egoitza-plaza batean sartzen bada, horrek ez du prestazio ekonomikoa galduko; hala ere, prestazio hori zerbitzuari modalitate arruntan lotutako prestazio ekonomiko bihurtuko da ofizioz, eta modalitate berri horri dagokion zenbatekoa atsedenaldi osoan aplikatuko da.

10. artikulua – Zerbitzuari edo zentroari eska dakizkikeen baldintzak

1.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari atxikitako zerbitzuak edo zentroak, edozein modalitatetan, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Arabako Foru Aldundiak emandako funtzionamendu-baimena izatea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 41.10 artikuluan aurreikusitako baimen, ikuskapen, erregistro eta homologazioen eskumenen esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Baimena, Erregistroa, Homologazioa eta Ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera, zerbitzu edo zentro motaren arabera dagozkion baldintza materialak, funtzionalak eta langileenak betetzen direla egiaztatzean oinarrituta.

b) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea, ordenantza honen xedapen gehigarriaren 1 a) idatz-zatian aurreikusitako salbuespen-egoeraren kalterik gabe.

2.- Atsedeen-modalitaterako, atxikiko den zentroa edo zerbitzua beste edozein lurralde historikotan edo beste autonomia-erkidego autonomikotan egon ahal izango da. Zentro edo zerbitzu horrek jarduteko baimena edota dagokion organo eskudunak emandako egiaztagiria izan beharko ditu, baita eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

11. artikulua – Zerbitzuz edo zentroz aldatzea

1- Onuradunak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa modalitate arruntean lotuta dagoen zerbitzua edo zentroa aldatu nahi badu izaera bereko eta gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko beste zerbitzu edo zentro batera sartzeko, zerbitzua edo zentroa aldatzeko eta prestazio ekonomikoari eusteko baimena eskatu beharko du. Horretarako, lotu nahi den zerbitzu edo zentroarekin sinatutako kontratu berriarekin – edo, hala badagokio, aurrekontratuarekin – batera aurkeztuko du eskabidea, eta gehienez ere 30 egun naturaleko epean ebatziko da, eskaera aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Administrazio-isiltasunaren kasuetan, baimena eman dela ulertu beharko da.

2- Zerbitzua edo zentroa aldatzeko eskaera horrek ez du ekarriko prestazioa iraungitzea, baldin eta zerbitzu edo zentro berriak aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta zerbitzu edo zentroz aldatzeak ez badakar inolako etenik emandako arretan.

III. kapitula**Prestazio ekonomikoari lotutako betebeharrak****12. artikulua – Betebeharrak**

Oro har, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa onartzen denean, honako betebehar hauek hartzen ditu:

- a) Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa eman zen helbururako soilik erabiltzea, hurrengo artikuluetan prestazio ekonomiko bakoitzerako berariaz arautzen den moduan.
- b) Prestazioa eskuratzeko eskakizunei eustea eskurtze horren ondoren eta prestazioaren titularra den bitartean.
- c) Mendetasun-egoera aitortzeko kontuan hartutako egoeran izandako edozein aldaketa eta prestazio ekonomikoen iraupenean edo zenbatekoan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak jakinaraztea, gertatzen den egunetik zenbatzen hasita 15 egun naturaleko gehieneko epean, ahalmen ekonomikoaren zehaztapenean eragina izan dezaketen aldaketak barne.
- d) Prestazio ekonomikoa kudeatzeko beharrezkoa den informazioa ematea eta eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztea.
- e) Emandako prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeko baimena ematea Kanpezuko Udalari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.
- f) Bidegabe jasotako prestazioen zenbatekoa edo behar ez den zenbatekoa itzultzea.
- g) Prestazioaren berezko helburutik eratorritako guztiak.

III. TITULUA PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

13. artikulua – Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa finkatzea

1.- Zerbitzuari lotutako prestazioei dagozkien gehieneko zenbatekoak ordenantza bidez onartuko dira, honako maila hauek adierazita:

a) Oinarrizko babes-maila, prestazioak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei aplikatzekoa.

b) Arabako Lurralde Historikoan Lurralde horrekin lotura berezia dutela egiaztatzen dutenei aplikatu beharreko babes-maila gehigarria, Ordenantza honen 7.2 artikuluan aurreikusitako moduan.

2.- Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretuaren 13. artikuluan eta V. eranskinean xedatutakoaren arabera (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarrita daude prestazio horiek), honako hau izango da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren gutxieneko zenbatekoa, ohiko modalitatean:

GRADOS Y PUNTUACIÓN BAREMO VALORACIÓN DE DEPENDENCIA	PRESTACIÓN ECONÓMICA VINCULA AL SERVICIO
	CUANTÍA / EUROS MES
I.gradua eta mendetasun arriskua (23-24BVD)	100,00

3.- Zerbitzuari modalitate arruntean lotutako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira:

Mendekotasuna baloratzeko baremoaren graduak eta puntuazioa	Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, Arabako Lurralde Historikoan ondoz ondoko 3 urtez errolatuta egon direla eta ostatu iraunkorreko zerbitzua finantzatzen dela egiaztatzen dutenentzat	
		Hileroko euro-kopuruak	
	Zenbatekoa	Zenbatekoa	
I. gradua eta mendetasun- arriskua (23-24 MBB)	300,00	575,30	

Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa)		
---------------------------------------	--	--

Honako hauek izango dira Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoen gehieneko zenbatekoak atsedeen-modalitatean:

Gradua	Prezioa/gaua	Prezioa/gaua 3 urtez jarraian Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon direla egiaztatzen dutenentzat	Zenbatekoa: lehenengo 15 egunetan
I. gradua eta mendetasun-arriskua (23-24 MBB Mendekotasuna Baloratzeko Baremoa)	10,00 euro	45,00 euro	95,00 euro

14. artikulua – Prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoa zehaztea, ahalmen ekonomikoaren arabera

1.- Pertsona bakoitzari dagozkion prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko, pertsona horrek duen gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan, eta gaitasun ekonomiko hori kasuan kasuko zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen udal araudian ezarritakoaren arabera baloratuko da.

2.- Aurrekoa ez zaio aplikatuko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari, atsedeen-izaerarekin, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua edo ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak, eta udal araudian zehazten diren zenbatekoetara soilik egokituko da.

3- Onuradun bakoitzari aitortu beharreko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren banakako zenbatekoa zehazteko, aurreko artikuluan aipatutako ekitaldi bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko zenbatekoari honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkio, artikulua honen aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoaren arabera:

Urteko gaitasun ekonomiko indibiduala	EHUNEKOA
96.315 eurotik gora	% 40
82.557 eurotik 96.315 eurora	% 50
68.797 eurotik 82.556 eurora	% 60

55.038 eurotik 68.796 eurora	% 70
45.865 eurotik 55.037 eurora	% 80
36.692 eurotik 45.864 eurora	% 90
36.692 euro baino gutxiago	% 100

4.- Hirugarren paragrafo honetan aurreikusitakoaren arabera zehaztutako prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoa 15. artikuluan aurreikusitako kenkarietara kalterik egin gabe ulertu beharko da, kenkari horiek aplikagarriak direnean.

5.- Aurreko bi paragrafoen arabera zehazten den prestazio ekonomikoen zenbatekoa ez da inola ere kontratatutako zerbitzuaren edo zentroaren benetako kostua baino handiagoa izango.

15. artikulua – Kenkariak

1.- Artikulu honen 2. paragrafoan aurreikusitako salbuespenarekin, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoen onuraduna 14. artikulua aplikatzearen ondoriozko prestazioaren zenbatekotik kenduko dira prestazio horiei dagozkien zenbatekoak, gizarte-babeseko beste araubide publiko batean ezarritako izaera edo helburu bereko eta antzeko beste edozein prestazioren titularra bada. Zehazki, honako prestazio hauei dagozkien zenbatekoak kenduko dira:

a) Baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

b) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan aurreikusitako ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten 18 urtetik gorako seme-alabengatik esleipen ekonomikoen osagarria, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

c) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan aurreikusitako beste pertsona baten premiagatik kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioaren osagarria.

d) Minusbaliatuak Gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitako hirugarren pertsonarentzako laguntza-sorospena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez atxikia, Legegintzako Errege Dekretu hori indarrean sartzean haren onuradun zirenentzat eta haren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenentzat, esleipen ekonomiko horren titulartasuna gurasoetako batena, tutoreetako batena edo pertsona berarena izan ala ez.

2- Artikulu honetan aurreikusitako kenkariak ez zaizkio aplikatuko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoari, atsedeen-modalitatean, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua edo ostatu-zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeko, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo daudenak. Eta udal araudiak zehazten dituen zenbatekoetara soilik egokituko da, 13. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

IV. TITULUA. PRESTAZIOA AITORTZEA, BERRIKUSTEA, ALDATZEA, ETETEA ETA AZKENTZEA

16. artikulua – Prozedura aplikagarria

Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko prozedura titulu honetan jasotako prozedura-xedapenen arabera arautuko da, bai prestazioa aitortzeari dagokionez, bai hura berrikusteari, aldatzeari, eteteari eta azkentzeari dagokionez.

I. kapitula Prozedurako arau orokorrak

17. artikulua – Prozeduraren instrukzioa

Prestazioen eskaerak idatziz eta eredu ofizialean egingo dira. Eskabidearekin batera, eskatutako prestazio bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Gizarte Zerbitzuek prestazioak izapidetzeko behar duten informazio eta orientazio guztia emango diete eskatzaileei.

18. artikulua – Entzunaldiaren izapidea

Udalak eskatzaileak eskabidean aurkeztutakoez gain beste egitate edo froga batzuk ere kontuan har baditzake, udalak entzunaldi-izapidea prestatuko du, eskatzaileak dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.

II. kapitula Prestazio Ekonomikoak Aitortzea

19. artikulua – Dokumentazioa

1.- Prestazio ekonomikoak jasotzeko, eskatzen dituen pertsonak, zuzenean edo bere legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen bidez, jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkeztuko du:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo, halakorik ezean, bizikidetzak-unitateko kide konputagarri bakoitzaren nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialena, prezio publikoak arautzen dituen araudian aurreikusitakoaren arabera.
- b) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazio ekonomikoak eskuratzeko datu osagarriei buruzko justifikazio-dokumentazioa, diru-sarreraren eta ondasunen zinpeko aitortpena barne.
- c) Titularra eta kontua identifikatzeko fitxa, banketxeak sinatua eta zigilatua.
- d) Arabako Lurralde Historikotik kanpo dauden ondasunen titulartasuna egiaztatzen duten agiriak.
- e) Prestazio ekonomikoa beharrianari egokitzen zaion zehazteko beharrezkoak eta egokiak izan daitezkeen beste txosten batzuk.
- f) Hala badagokio, babes-maila gehigarria aplikatu ahal izateko, aurreko hiru urteetan jarraian Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon dela egiaztatzen duen udal ziurtagiria, ordenantza honen 7.2 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2.- Modalitate arrunteko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa denean, udaleko gizarte-zerbitzuekin zerikusirik ez duten zerbitzu edo zentroetan sartzeko:

- Kontratua edo, halakorik ezean, aurrekontratu bat, prestazioari lotutako zentro edo zerbitzu pribatuaren eta prestazioaren titularraren edo, hala badagokio, legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen arteko arreta-konpromisoa jasotzen duena. Dokumentu horretan, gutxienez, honako eduki hauek jaso beharko dira: zentroko egonaldiaren edo zerbitzuaren erabileraren hasiera-data; titullarrak ordaindu beharreko hileko prezioa; eta kontratatutako zerbitzuaren edukiaren deskribapena. Kontratuak edo, hala badagokio, aurrekontratuak kontratu mugagabeko harreman bat aurreikusi beharko du, hasierako probaldia izango duena, Ordenantza honen 10 b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- Hala badagokio, 22.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzeko baimena ematea.

3.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa denean, atsedeen-modalitatean, atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo:

- Eskatutako gau edo egun kopurua, atsedeen-zerbitzuaren edo -zentroaren izaeraren arabera.

- Hala badagokio, 22.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzeko baimena ematea.

20. artikulua – Ebazpen-proposamena eta ebazpena

1.- Ordenantza honetan araututako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa esleitzeko ebazpen-proposamenak eta ebazpenak eduki espezifiko hauek izan beharko dituzte:

- a) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean:
 - Prestazio ekonomikoa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion;
 - Prestazioa iraungi egingo dela adieraztea, gizarte-zerbitzuen sistema publikoan sartuta dagoen izaera bereko zerbitzu edo zentro batean plaza hutsik badago, eta prestazioa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren izaerari dagokion Plazak Kudeatzeko Programako Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan eskatzailerik zain ez badago;
 - Aldez aurretik zerbitzuarekin edo zentroarekin aurrekontratu bat aurkeztu bada, prestazioaren ordainketa eraginkorra azkenean formalizatutako kontratua aurkeztearen baldintzapean dagoela adieraztea;
 - Ahalmen ekonomikoa aldatzen zaionean, prestazio ekonomikoa berrikusteko eska dezakeela adieraztea, zenbatekoa aldatze aldera.
- b) Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedeen-modalitatean, eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) - gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo- emandako atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko:
 - Prestazio ekonomikoa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion identifikatzea.
 - Emandako gau- edo egun-kopurua, dagokion zentro edo zerbitzuaren izaeraren arabera;
 - Zein urte naturalerako ematen zaion.

2.- Kasu guztietan, ebazpenak berariaz adieraziko du esleitutako prestazio ekonomikoa jarraitu ahal izateko baldintza hauek bete beharko direla: prestazioa emateko arrazoiek bere horretan irautea, prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzea, onarpenaren ondoriozko betebeharrak betetzea eta azkentzeko inolako arrazoirik ez egotea, Ordenantza honen 23. artikuluan eskubidearen iraupenari buruz aurreikusitakoarekin bat etorritz.

21. artikulua – Prestazio ekonomikoetarako eskubidearen sortzapena

1.- Ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubideak ondorioak sortuko ditu pertsonari dagokion prestazio ekonomiko zehatza aitortzen eta esleitzen dion ebazpenaren egunetik aurrera.

2- Hala ere, artikuluko honen 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubideak ondorioak izan ditzake ebazpena eman eta hurrengo egunean, ebazpena prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroan sartu aurretik ematen bada. Kasu horietan, prestazioa zein zerbitzu edo zentrori lotzen zaion, zerbitzu edo zentro horretan benetan sartzen denetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpenak.

22. artikulua – Prestazio ekonomikoen ordainketa

1.- Prestazio ekonomikoak mugaeguneratutako hilabeteen arabera ordainduko dira, eta urteko 12 hilekotan ordainduko dira, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan izan ezik, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuko atsedeen-zerbitzua eskuratzeko atsedeen-modalitatean, edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), eta, ordainketari dagokionez, artikuluko honen 2. paragrafoan aurreikusitakoaren mende geratuko da.

2.- Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, atsedeen-modalitatean, eguneko arreta-zerbitzuan edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), gizarte-zerbitzuak sistema publikotik kanpo, emandako atsedeen-zerbitzuak eskuratzeko, ordainketa egonaldia amaitu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da, honako dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

- a) jatorrizko faktura, zentroak edo zerbitzuak sinatua eta zigilatua. Bertan zehaztuko da zenbat gau edo egun egon den zentroan – zerbitzuaren izaeraren arabera –, baita zenbat egunetan sartu eta irten den ere, eta ez da inola ere ordainduko laguntza emateko ebazpenean aitortutakoa baino gau edo egun gehiago;
- b) faktura ordaindu izanaren bankuko egiaztagiria.

Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa Arabako Lurralde Historikoan ez dagoen zentro edo zerbitzu bati lotzen bazaio, zentro edo zerbitzu hori baimendutako edo homologatutako zentroa dela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko zaio kokatuta dagoen eremu geografikoaren arabera eskumena duen administrazioari.

Justifikatutako gau edo egun kopurua – zerbitzu motaren arabera – ebazpenean onartutako kopurua baino txikiagoa bada, benetako egonaldiak ordainduko dira, beste ebazpenik eman beharrik gabe.

3- Prestazio ekonomikoak banku-transferentzia bidez ordainduko dira, banku-kontuaren identifikazio-fitxan adierazitako kontuan. Kontu horren titularra prestazio ekonomikoaren onuraduna izango da, hurrengo paragrafoan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

4- Aurreko lerrokadan aurreikusitakoa gorabehera, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, modalitate arruntean eta atsedenerako modalitatean, prestazioa titularraz bestelako pertsona fisiko edo juridikoari ordaintzea erabaki ahal

izango da, baldin eta prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren ordezkari gisa jarduten duela egiaztatzen badu, prestazioaren titularraren alde aurreko baimenarekin, baldin eta prestazioa eman zen helbururako ez erabiltzeko arriskua badago, eta prestazioa jasotzeko legezko ordezkari edo gertakari-zaintzailerik ez badago. Ordainketa titularra ez den beste pertsona fisiko edo juridiko bati egiten bazaio, prestazioa jasotzen duen pertsonak edo erakundeak konpromisoa hartu beharko du, idatziz, gizarte-zerbitzuei jakinarazteko heriotzagatik, zentroz aldatzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik gertatzen diren baja edo aldaketa guztiak, dagokion ereduaren bidez.

23. artikulua – Eskubidearen iraupena

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen onarpenari eutsiko zaio:

- a) dirulaguntza ematea eragin zuten arrazoiek irauten badute;
- b) horietan sartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira;
- c) onarpenaren ondoriozko betebeharrak betetzen badira;
- d) Ordenantza honen 39. artikuluan arautzen diren azkentze-arrazoietakoa bat bera ere gertatzen ez bada.

III. kapitula

Prestazio ekonomikoak berrikustea, aldatzea, etetea eta azkentzea

24. artikulua – Onartutako prestazioak berrikustea

1- Prestazio ekonomikoak edozein unetan berrikusi ahal izango dira ofizioz.

2- Prestazio ekonomikoak alderdi batek eskatuta berrikusi ahal izango dira, baldin eta:

- a) onarpena eragin zuten eta prestazioa jasotzeari eragin diezaioketen baldintzak aldatzea;
- b) titularraren ahalmen ekonomikoa aldatzen bada eta horrek prestazio ekonomikoaren zenbatekoari eragin badiezaioke;
- c) titularraren beharren edo egoera pertsonalaren bilakaerak prestazio ekonomikoa aldatzea edota zerbitzu bat eskuratzea gomendatzen badu.

3- Lehenengo eta 2. paragrafoetan aipatutako berrikuspenetan, prestazio ekonomikoen titularrei – edo haien legezko ordezkariari edo egitatezko zaintzaileari – eskatu ahal izango zaie beharrezko jotzen den dokumentazioa aurkezteko, dagozkien baldintzak eta betebeharrak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

4- Prestazio ekonomikoak berrikusteak honako aldaketa hauek ekar dezake: prestazioaren zenbatekoa aldatzea, prestazio ekonomikoa etetea edo azkentzea, kapitulu honetako hurrengo ataletan aurreikusitakoaren arabera.

*1. atala - Prestazio ekonomikoen zenbatekoa aldatzea***25. artikulua – Prestazioaren zenbatekoa aldatzea**

1- Prestazio ekonomikoen zenbatekoa aldatu ahal izango da, baldin eta, aurreko artikuluan araututako berrikuspenaren esparruan, honako hauek gertatu direla egiaztatzen bada:

- a) titularraren gaitasun ekonomikoa aldatu bada 14. artikuluan zehaztutako prestazioaren banakako zenbatekoan eragina duena;
- b) 15. artikuluan aurreikusitako kenkari aplikagarrietan aldaketa bat gertatu bada;

2- Zenbatekoa aldatzearen ondorioek aldaketaren arrazoia gertatu zen egunera arteko atzeraeragina izango dute.

*2. atala – Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea etetea***26. artikulua – Etetearen arrazoiak**

1.- Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea honako arrazoi hauengatik eten egingo da:

- a) Adinekoentzako ostatu-zerbitzuko atsedeen-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeagatik, dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuak, dela sistema horretatik kanpoko zerbitzuak, zeinetara pertsona Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomiko baten bidez sartzen baita, atsedeen-modalitatean.

Kasu horietan, adinekoentzako ostatu-zerbitzuko atsedeen-zerbitzu bat (etxebizitza komunitarioa) eskuratzeak ez du ekarriko Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa etetea autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak eskuratzeko, baldin eta ostatu-zerbitzuak zerbitzu horiekin parekatzeko moduko zerbitzurik eskaintzen ez badu eta zerbitzu horiek benetan erabiltzen badira.

- b) Eguneko arreta-zerbitzuan atsedeen-zerbitzu bat eskuratzeagatik – dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuak, dela sistema horretatik kanpoko zerbitzuak, zeinetara pertsona Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomiko baten bidez sartzen baita, atsedeen-modalitatean. Etete-arrazoi hori autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuei lotutako prestazio ekonomikoari baino ez zaio aplikatuko, baldin eta eguneko arreta-zerbitzuak zerbitzu horien antzeko zerbitzuak eskaintzen baditu.

- c) Onuraduna jarraian 45 egun baino gehiagoz ospitaleratzten badute.

d) Honako betebeharrak hauek betetzean izandako atzerapenagatik, betiere atzerapen hori hilabete baino gehiagokoa ez bada, aipatutako epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita:

- Prestazio ekonomikoa eman zen helbururako osorik erabili dela egiaztatzea.
- Prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeko aukera ematea.
- Gizarte Zerbitzuek prestazio ekonomikoa kudeatzeko eskatzen dieten informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea.

2.- Aurreko d) idatz-zatian aipatutako atzerapena hilabetetik gorakoa bada, betebeharra ez dela bete ulertuko da, eta prestazio ekonomikoa azkendu egingo da Ordenantza honen 29.1 i) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

27. artikulua – Etetearen ondorioak eta iraupena

Prestazio ekonomikorako eskubidea eteteak beraren ordainketa etetea ekarriko du, eta ondoreak sortuko ditu data hauetatik aurrera:

a) Etenaldia atsedeen-zerbitzu baterako sarbidearen ondoriozkoa denean, 26-1 artikuluko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako baldintzetan, atsedeen-zerbitzurako sarbidearen datatik aurrera. Kasu horretan, etenaldia atsedeen-zerbitzuan dagoen bitartean mantenduko da.

b) Etenaldia ospitaleratu behar denean, 26-1-c) artikuluan aurreikusitako baldintzetan:

- 26-1-c) artikuluan aipatutako 45 eguneko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Etenaldiak ospitaleratze-aldian iraungo du, baina inola ere ez 6 hilabetetik gorako aldi jarraituan, etendura gauzatzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, prestazioa jasotzeko eskubidea automatikoki iraungiko da, 29.1 k) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c) Etendura 24 d) artikuluan aipatutako betebeharrak betetzeko hilabete baino gutxiagoko atzerapenagatik gertatzen denean, etendura ebazten den egunetik aurrera. Kasu horretan, etenaldiak hilabete bat iraungo du.

28. artikulua – Prestazioaren ordainketa kautelaz etetea

1- Prestazioa azkentzeko prozedura hasi den edo ez alde batera utzita, hurrengo atalean aurreikusitako baldintzetan, ofizioz edo alde batek eskatuta, prestazio ekonomikoaren ordainketa kautelaz eten ahal izango da, baldin eta prestazio ekonomikoa aitortzeko edo mantentzeko baldintzaren bat galtzea edo prestazio ekonomikoari lotutako betebeharren bat ez betetzea dakarren egoeraren baten zantzuak antzeman badira.

2- Kasu horietan, prestazio ekonomikoari eusteari, prestazioa eteteari edo prestazioa jasotzeko eskubidea azkentzeari buruzko ebazpena emango da, kautelazko etendura hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Etete hori beste hiru hilabetez luza

daiteke, kasuaren konplexutasunak hala justifikatzen badu eta dagokion txostenaren bidez hala arrazoitzen bada.

3. atala - Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea azkentzea

29. artikulua - Az kentzeko arrazoiak

1.- Oro har, ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea azkendu egingo da honako arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Titularraren heriotza.
- b) Ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak, orokorrak zein bereziak, galtzea.
- c) Titularrak edo haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak espresuki uko egitea.
- d) Banakako arreta-programa aldatzea, prestazioari lotutako zerbitzu-mota onuradunarentzat jada egokia ez dela zehazten duena.
- e) Azkentzearen xede den prestazio ekonomikoarekin bateraezina den zerbitzu edo prestazio ekonomikoren bat jasotzeko eskubidea aitortzea.
- f) Laguntza emateko ebazpenean ezarritako prestazio ekonomikoaren iraupen-epea igarotzea.
- g) Behin-behinean emandako mendetasun-aitorpenen kasuan aurreikusitako baliozkotasun-epea gairatzea, Ordenantza honen 25.1c) artikuluan aurreikusitako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatzen den kasuetan izan ezik.
- h) Onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batera modu iraunkorrean lekuz aldatzea.
- i) Honako betebeharrak hauek ez betetzea, edo betebeharrak betetzeko aurreikusitako epea amaitu eta hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin betetzea:
 - Emandako prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzeak aukera ematea gizarte-zerbitzuei.
 - Prestazio ekonomikoa eman zen helbururako erabili dela egiaztatzea.
 - Gizarte Zerbitzuek prestazio ekonomikoa kudeatzeko eskatzen dieten informazioa ematea eta dokumentazioa aurkeztea.
- j) Dokumentazio osagarrian agertu beharreko datuak edo informazioak ezkutatzea edo faltsutzea.
- k) Sei hilabetetik gorako etenaldi jarraitua igarotzea, etenaldia eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita.

2.- Gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu edo zentroetara sartzeko, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikorako eskubidea, modalitate arruntean, honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean iraungiko da:

- a) Prestazioaren onuradunaren eta hari lotutako zerbitzu edo zentroaren arteko kontratu-harremana amaitzea.

- b) Prestazioaren titularrak zentrotik justifikaziorik gabe joatea, urtean 45 egunetan baino gehiago.
- c) Gizarte-zerbitzuen sistema publikoan hutsik dagoen plaza bat ez onartzea, baldin eta prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzuaren izaerari dagokion Lanpostu Hutsak Esleitzeko Zerrendan eskatzailerik zain ez badago.

3.- Izaera espezifikoz, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikorako eskubidea, eguneko arreta-zerbitzua eskuratzeko atsedeen-modalitatean, edo ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) –kasu guztietan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpo–, iraungi egingo da honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- a) Prestazio hori eman den urte naturala amaitzea.
- b) Adinekoak ostatu-zerbitzuan sartzea (etxebizitza komunitarioa), dela gizarte-zerbitzuen sistema publikoko zerbitzuetan, dela hortik kanpo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez, modalitate arruntean.

4.- Aurreko paragrafoetan jasotako kasuetan, onuradunaren heriotzaren kasuan izan ezik, onuradunaren eskubidea azkendu aurretik prestazioa kautelaz eten ez bada, 15 eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio, arrazoiak eta alegazioak aurkezteko epea adierazita.

30. artikulua – Azkentzearen ondorioak

- 1- Eskubidea azkentzeak prestazioaren ordainketa etetea ekarriko du.
- 2- Prestazio ekonomikoak amaitzearen ondorioak azkentzeko arrazoiak gertatzen den egunetik aurrera ulertuko dira.
- 3- Prestazioa artikulua 1 j) idatz-zatian aipatutako arrazoiengatik azkentzen bada titularrak ezin izango du ordenantza honetan araututako prestazio ekonomikorik berriro eskatu, iraungitze-datatik urtebeterako epean.

V. TITULUA - BIDEGABEKO PRESTAZIOAK ITZULTZEA

31. artikulua - Bidegabeko prestazioak itzultzea

1.- Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz, edo beste edozein arrazoiengatik, Ordenantza honetan araututako edozein prestazio ekonomiko bidegabe edo behar ez bezalako zenbatekoan jaso dela egiaztatzen bada, titularrak itzuli egin beharko du, salbu eta itzulketa eskatzeko arrazoiak 33. artikuluan aurreikusitako moduan preskribatu bada.

2- Prestazioa bidegabeki jaso dela edo dagokion kopurua baino gehiago jaso dela uste baldin bada, hori zehazten duen ebazpenak itzultzeko betebeharra ezarriko dio onuradunari.

32. artikulua – Kopuru okerreko prestazioak itzultzeko prozedura

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitako edozein kasutan, bidegabeki jasotako prestazioak edo jaso behar ziren baino kopuru handiagoak jaso izatekotan, itzultzeko prozedura hasiko da.

2.- Prozedura hasitakoan, titularrari jakinaraziko zaio prozedura hasi dela, zergatik hasi dela eta ondorio ekonomikoak ekar ditzakeela adieraziko zaio. Baita ebazteko eta jakinarazteko epea ere. Interesdunek, jakinarazpen-datatik gehienez hilabeteko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

3.- Alegazioak jaso ondoren edo epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, gehienez ere hilabeteko epean ebazpena emango da, prestazioa bidegabe edo behar ez bezala jaso den ala ez adierazteko. Ebazpen hori arrazoituta egon beharko da.

4.- Prestazioa bidegabe edo behar ez bezalako zenbatekoan jaso dela uste bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako ebazpenak bidezkoak diren zenbatekoak itzultzeko betebeharra adieraziko du, eta bertan finkatuko du interesdunak betebeharrak hori gauzatzeko izango duen gehieneko epea, baita, hala badagokio, ordainketa zatikatzeko akordio baten esparruan egin beharreko hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa ere. Horretarako, ofizioz konpentsatu edo deskontatu ahal izango dira titularrak hilero jasotzen dituen prestazio ekonomikoak.

33. artikulua - Itzulketaren eta preskripzioaren prozedura iraungitzea

1.- Aurreko artikuluko 3. paragrafoan aurreikusitako itzulketa-prozedura ebazteko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, eta prozedura hori deklaratzeko duen ebazpenak jarduketak artxibatzeak aginduko du. Prozedura interesdunari egotz dakioken arrazoiren batengatik gelditu bada, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da.

2.- Administrazioak erreklamatu gabe edo aurreko artikuluan aurreikusitako moduan ordainketa zatikatzea erabaki gabe bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrak bost urteko epea igarotzeagatik preskribatuko du, ez-betetzea egiaztatzean eman beharreko ebazpenari kalterik egin gabe.

VI. TITULUA - PRESTAZIO EKONOMIKOEN ETA ARRETAREN KALITATEAREN JARRAIPENA

34. artikulua - Prestazio ekonomikoen jarraipena

1- Prestazio ekonomikoen jarraipena egingo da, egiaztatzeko prestazio horiek eman ziren helburuetarako erabiltzen direla eta titularrek, prestazio ekonomiko horien bidez, beren premiei behar diren intentsitatean eta kalitatean erantzuteko arreta egokia jasotzen dutela.

2- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prestazio ekonomikoaren titularrari – edo haren legezko ordezkariari edo izatezko zaintzaileari – eskatu ahal izango zaio modu frogagarrian egiazta dezala aitortutako prestazio ekonomikoari aplikatutako xedea.

3- Oro har, gutxienez urteko jarraipena egingo da. Era berean, jarraipen ohikoagoak egitea erabaki ahal izango da, hartzaileen artean inguruabar espezifikoak daudenean.

4- Era berean, ofizioz berrikusi ahal izango da 14. artikuluan definitutako prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa kalkulatzeko kontuan hartutako ahalmen ekonomikoa.

5.- Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoaren kasuan, gizarte-zerbitzuen sistema publikotik kanpoko zerbitzu edo zentroetara sartzeko modalitate arruntan, jarraipenaren helburua izango da:

- a) Prestazio ekonomikoaren titularrak prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren erabiltzaile izaten jarraitzen duela egiaztatzea.
- b) Laguntza mota, intentsitatea eta kalitatea prestazio ekonomikoaren titularraren beharretara behar bezala egokitzen direla egiaztatzea.
- c) Gizarte-zerbitzuetako zerbitzu eta zentroak baimentzeko ardura duen foru-zerbitzuari kontsulta eginez, egiaztatu behar da prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzuak edo zentroak baimen horretarako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten esparruan egiaztatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.
- d) Prestazioaren titularrak urtean gutxienez 8 hilabetez Arabako Lurralde Historikoan benetako bizilekua duela egiaztatzea, prestazioa babes-maila osagarriaren barruan sartzen denean, Ordenantza honen 7.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Salbuespen-egoerak.

1.- Salbuespen gisa, inguruabarrek hala eskatzen dutenean eta txosten teknikoek hala baloratzen eta justifikatzen dutenean, honako salbuespen hauek aplikatu ahal izango dira:

- a) Ordenantza honen 13., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioen gaineko zenbateko gehigarri bat ematea, kasuen arabera aplikagarriak diren heinean, Gizarte Zerbitzuen ustez ikuspegi sozioekonomiko batetik babesgabetasun-egoera berezian dauden pertsonen, adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuan edo adinekoentzako ostatu-

zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) sartzeko aukera emateko, modalitate arruntean zein atsedenerako modalitatean.

Adinekoak ezohiko babesgabezia-egoera duela ulertuko da, ikuspegi sozioekonomiko batetik, aldi berean honako inguruabar hauek gertatzen direnean:

— Pertsonak eguneko arreta-zerbitzuan edo adinekoentzako ostatu-zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) sartu behar duenean – dela atsedenaldi baterako, dela denbora luzeagorako –, bere premietarako eta egoera pertsonalerako alternatiba egoki bakar gisa, asistentziaren ikuspegitik. Horretarako, dagokion zentro edo zerbitzurako sarbidea mendekotasuna duen pertsonarentzat egokia den laguntza-aukera bakarra dela justifikatzeko, txosten tekniko bat egingo da, eta administrazio-espedienteari erantsiko zaio.

— Bere gaitasun ekonomikoa, 13., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioaren zenbatekoari gehituta, kasuen arabera aplikatzekoak diren heinean, dagokion zentro edo zerbitzuari dagokion prezioa ordaintzeko nahikoa ez denean, edo, gaitasun ekonomiko nahikoa izan arren, pertsonak ez duenean behar adinako likideziarik prezio hori ordaintzeko, egoera horiek dagozkion gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen udal araudian zehazten diren baldintzetan. Ondorio horietarako, kaudimen edo likidezia nahikoa ez bada, administrazio-espedientea jasoko duen txosten baten bidez baloratuko da.

Babesgabeziako salbuespenezko egoera hautemateko, aurreko irizpideez gain, kontuan hartu ahal izango dira bizigarritasun- eta ekipamendu-baldintza desagokiak eta prestaziorako eskubidea duen pertsonaren ohiko etxebizitzan arkitektura-oztopoak egotea.

Kasu guztietan, a) idatz-zati honetan araututako zenbateko gehigarriak ordainketa geroratzea eta zorra aitortzea ekarriko du, eta dagozkien gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen foru-araudian horiei buruz jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira.

Kasu horietan, bermeak eskatu ahal izango dira, berme horiek dagozkien gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen aipatutako udal araudian zehazten eta artikulatzen diren baldintzetan.

- b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batzuetako edo mugakide diren beste autonomia-erkidego batzuetako zentroetan sartzeko, betiere zentro horiek jarduteko baimena badute lurralde historiko edo erkidego horretan, eta egonaldiaren iraupena salbuespen-ebazpenean zehaztuko da.

2) Atsedeen-modalitaterako, lotzen den zentroa edo zerbitzua beste edozein lurralde historikotan edo mugakide den beste autonomia-erkidego batean egon ahal izango da, eta dagokion organo eskudunak emandako funtzionamendu-baimena edota ziurtagiria izan beharko ditu, baita eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa ere.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Mendekotasun-maila kontuan hartzea.

Ordenantza honetan jasotako mendetasun-mailari buruzko aipamenak 20/2012 Dekretuaren aurretikoak dira. Izan ere, Aurrekontu Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko Neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretuak mendetasun-mailak ezabatu zituen. Beraz, pertsonen mendetasun-egoera berrikusten ez den bitartean maila horiek aplikatuko dira. Eta, berrikusten direnetik aurrera, gradua baino ez da adieraziko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira ordenantza honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapenetatik lehenengoa. Ordezko araubidea.

1.- Ordenantza honetan berariaz aurreikusten ez den guztirako, zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoetan xedatutakoa aplikatuko da.

2- Lehenengo paragrafoan aipatutako arauak berariaz aurreikusten ez duten guztirako, honako xedapen hauek aplikatuko dira osagarri gisa: 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa; 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoa; 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa; eta 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, baita indarrean dauden eta bat datozen eta aplikatu behar diren legezko xedapenak ere.

3- Oro har, arau espezifikoak egindako erreferentziak, estatutakoak, autonomikoak edo foralak izan, unean-unean gai horiei buruz indarrean dagoen araudiari buruzkoak direla ulertu beharko da.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean sartzea

Ordenantza hau 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.